

BORTZIRIETAKO UDALEKU IREKIAK ANTOLATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA

-ESLEIPEN PROPOSAMENA-

- **TOKIA:** Arantzako Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2025-01-15
- **ORDUA:** 16:00
- **KONTRATUAREN XEDEA:** Bortzirieta Euskara Mankomunitateko udaleku irekiak antolatu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua.
- **PROZEDURA:** Irekia.

BERTARATUAK:

- **LEHENDAKARIA:** Leire Mitxelena Gamio, Bortzirieta Euskara Mankomunitateko lehendakaria.
- **1. MAHAIKIDEA:** Patri Arburua Etxeberria, Bortzirieta Euskara Mankomunitateko euskara teknikaria.
- **2. MAHAIKIDEA:** Uxo Gamio Equioz, Bortzirieta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko gizarte hezitzailea.
- **IDAZKARIA:** Nagore Madariaga Iriarte, Bortzirieta Euskara Mankomunitateko idazkaria.

Arantzan, 2025eko urtarrilaren 15ean, arratsaldeko 16:00etan Arantzako Herriko Etxean egindako barne ekitaldian, Kontratazio Mahaia batu da DINDAIA FUNDAZIOARI plegu arautzaileko 15. klausulan xedaturikoaren arabera, aurkezturiko dokumentazioa zuzena den aztertzeko.

Aipaturiko enpresak 2025eko urtarrilaren 10eko datarekin errekeritutako dokumentazioa aurkeztu du. Honako hau aztertu ondoren, egiaztatu da eskaturikoarekin bat datorrela.

Horrela bada, honako hau erabaki da:

1.- Kontratazio organoari proposatzea DINDAIA FUNDAZIOARI esleitzea Bortzirieta Euskara Mankomunitateko udaleku irekiak antolatu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua 42.036,00 €-tan, BEZa kanpo.

2.- Espedientea eta aktak kontratazio organoari helaraztea, Kontratazio Mahaiak jarduketak amaitutzat emanda.

Aztergai gehiagorik gabe, bilkura 16:15ean amaitu da, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean. Horri buruzko akta hau idatzi da.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako akta hau sinatzen dugu.

Arantzan, 2025eko urtarrilaren 15ean.

LEHENDAKARIA,	1. MAHAIKIDEA	2. MAHAIKIDEA,	IDAZKARIA,
Leire Mitxelena Gamio	Patri Arburua Etxeberria	Uxo Gamio Equioz	Nagore Madariaga Iriarte